

Txina eta beste, IMHren jardunaldietan

AZAROAREN 17AN izango da Elgoibarko Makina Erreminta Institutuak antolatutako *30+10 mintegiaren* 6. edizioa. *Hizkuntza-kudeaketa enpresan* gaiaren inguruan bi mahai-inguru eta hamar hitzaldi prestatu dituzte. *Hizkuntza kudeaketa eta enpresa ekin-tzaileak* izeneko mahai-inguruan ondokoek hartuko dute parte: Nuria Lopez de Gereñu (Confebaskeko idazkari nagusia), Miren Gabilondo (Gipuzkoako Txinera Institutuaren zuzendaria), Xabier Uribe-Etxebarria (Anboto Groupen sortzailea), Josep Maria Canyelles (Think tank Responsabilitat global-en sustatzaile

lea) eta Jon Peli Uriguen (Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza Diputatu).

OEEren topaketak

AZAROAREN 19AN egingo ditu Osasungo Euskalduntzeko Erakundeak topaketak Eibarren. Osasun administrazioetan egiten ari diren hizkuntza politikak aztertuko dituzte. Hizlari arituko dira ondokoak: Paul Bilbao (Kontseilua), Roberto Manjon (Osakidetzako euskara teknikaria), Adrian Hugo Llorente (Medikuntzako ikaslea 5. mailan) eta Garbiñe Petriati (Hizkuntz Eskubideen Behatokia). Komunikazioak aurkezteko aukera ere badago.

Hitz Gurutzatuen Txapelketa Irunen

Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen V. TXAPELKETA



AZAROAREN 26AN egingo da Irunen Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen V. Txapelketa, *Luma* aldizkariak antolatuta. Izen-ematea azaroaren 23an bukatuko da eta lehiakide bakoitzak 25 euro ordaindu behar ditu.

Izarreibarko euskarazko antzinako testuak liburuan

AITOR ARANA aritu da segidako izenburua duen liburua prestatzen: *Irakurgaiak Izarreibarko euskaraz. Uterga, Ukar eta Garesko testu zaharrak eta berriak*. Bi zati ditu liburua. Lehenengo zatian antzinako herritar euskaldunei kristau gaiak irakasteko erabiltzen ziren testuak daude. Bigarren zatian berriz, *Martin eta basajaunak, Ona eta piztia* eta *Nola Kattalinek deabruari ziria sartu zion* ipuinak jaso dituzte.

Euskalerria Irratia Gobernuari kontu eske

Nafarroako ikus-entzunezko hedabideen lizentziak abenduan banatuko ditu Gobernuak. Lizentziarik ez duen Euskalerria Irratiak lizentzia banaketarako foru dekretuari alegazioak aurkeztu dizkio. Hainbat eskaera egin dizkio irratia Gobernuari, besteak beste:

- Lizentziak banatzeko prozedura fase guztietan ardua komunikazio-ko adituek izatea.
- Euskara hutsean aritzeko frekuentzia batzuk erreserbatzea aintzat hartzea.
- Jokoan dauden frekuentzia bakoitzak etorkizunean zein zerbitzu bete beharko dituen definitzea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Gaizkile fiskalen izenak argitaratu

Joan den astean Bizkaiko Ogasunak iruzur fiskalaz hitz egin zuen, eta sindikatu abertzaleek iruzur hori salatu zuten. Politika fiskal justu eta solidarioak ardatz nagusi eduki beharko luke iruzur eta ihesaldi fiskalak ezabatzea. Politikariek ondo dakite non dauden, baina ez dute ezer egiten ezabatzeko. Iruzur-hobi horien (enpresariak, aberastasun handiak, burtsalariak, notarioak, medikuak, dentistak, arkitektoak, ingeniariak, erregistratzaileak, kirolariak...) azterketa egiazko, irmo eta etengabekoa eginez aurkitu daitezke Hego Euskal Herrian iruzur fiskalaren bidez ihes egiten duten 13.000 milioi euroak. PSEk onartzen du EAEn iruzur fiskala BPGaren %20a dela, urtean 2.000-2.500 milioi euro, alegia. Baina adituen arabera, EAEko BPGaren %20a 13.000 milioi euro dira eta kopuru horren erdia Bizkaiari dagokio.

Odoluste fiskal hori benetan geratu nahi badugu, erakundeen arteko kolaborazioa beharrezkoa da, datuak eta estatistikak elkarbanatzeko. Norabide horren alde ez egitea, iruzur fiskalari eta diru-ihesari mesede egiten jarraitzea da. Foru erakunde batzuek diote, gehien dutenei gehiago ordaintzera derrigortzen bazaie, alde egingo dutela. Guztiz faltsua da. Biltzeari utzi zaion diruak, kapitalaren poltsikoan, espekulaziorako eta ihesaldi fiskalerako baino ez du balio izan. Politikariek, eragile sozial eta ekonomikoekin batera, benetako erreforma fiskalari ekin beharko liokete Euskal Herrian. Sakon-sakoneko aldaketa eragingo duen erreforma behar da. Iruzurgile eta iheslari fiskalen izenak argitaratu beha rdira, gaizkile direlako. Horrela baino ez dugu lortuko hazkunde ekonomikoan, aberastasunaren banaketa justuan eta enpleguaren sorreran aurrera egitea.

Juan Mari Arregi

